

MAIATZAK 1

"Lurra, bakoitzari bere bizibiderako eta bere aurrerabiderako tresnak eskuratzeko egiña baldin bada, gizon guzietan eskubidea daukate lur ortan behar dutena arkitzeko... Eskubide onen mendekoak dira beste eskubide guzikiak, diranak dirala. Auen artean, jabetasunaren eskubidea eta salerosketako askatasuna, daude; auek, eragotzen izateko ordez, erretzu egin behar dute ondasunak zuzenbidez banatzea; eta gizarteak behar larria dauka, eskubide oiek sorreran zuten elburuaren mende jartzeko.

"Munduko ondasunak daukanak, bere sendea premian ikusten baldin bada, eta bere bihotza isten badio, nola egon ditekarengan Jainkoaren maitasuna?" 1 Jn 3-17. Ala dio S. Ambrosio: "Behartsuari ematen diozuna, ez diozu zure ondasunetatik ematen; berea ematen bai diozu. Izan ere, guzien onerako jarria izan dana, zuk zereztat artzen duzu. Lurra mundu guzientzat izan da emana, eta ez aberasentzat bakarrik.

"Ez dago inolako arrazoirik, nor bere beharrak asetzeko behar duanaz gainetikoa ere bere onerako gordetzeko, besteak behar dutenik ere gabe dauden bitartean. Itz batean esateko: jabetzaren eskubidea ez ditekarengan erabili guzien onaren kaltean. "Baina tamalez, gizartearen egoera berri on gainetik, ekonomia aurrerabiderako eragilerik berezkoena "bakoitzaren probetxua" dala uste duen sistema bat altxa da. Ekonomia lege nagusia aukerabidea da sistema onentzat, eta bakoitz-jabetza erabateko eskubidetatz dauka; inolako mugarik gabeko eskubidetatz, dagozkin gizarte-betekizunak ere gabeko eskubidetatz.

"Frenurik gabeko liberaleria au diktadurarako bide da, eta diruaren agintekeria internazionalaren sortzailetzat zuzenki salatua utzi zuan Pio IXgarrenak. Orrenbesteko gehiegieria gaitzesteko ez dago era egokiagorik, ekonomia gizonaren serbitzurako dala behin gehiagotan gogoratzea baino.

"Kapitalismoa, sufrimendu askoren iturri, injustizia askoren sustrai eta, gaur oraindik irauten duten eta ondoren litzak ematen dituzten, sende arteko burruken pitzaille izan da.

"Gaurreguneko egoerari, bildur gabe auzgi eman beharra dago; burruka egin behar zaio; eta menderatu egin behar dira berekin dakartzin okerbidetatz. Osabideak, eraz-aldatze ausartak eskatzen ditu, berritzaileak sakonki.

"Asi beharra dago, egin-behar estuko eraberritzeak egiten, gehiago zai egon gabe. Bakoitzari onartu egin behar du leialki, dagozkin eginkizuna; batez ere, beren ezikeraz, egoeraz eta agintz ekintzarako egokiera aundiak dauzkatenak" (Errien Aurrerabidea).

PAULO VI

IKASTOLARI BURUZ HITZ BI (Bigarren zatia)

Orain arte, ikastolek dituzten kezka larrienak ikutu ditugu. Beste batzuk ere ba direla nahiko ongi dakit, pedagogiak mila problema baliitu bainan artikulua honetan ikutu ditugunak, ikastolaren problema gogorrenak direla nahiko garbi dagoela uste dut.

Beraz eta orain arte esana kontuan harturik, atera litekeen ondorioak hauk dira.

1.—PLANIFIKAZIO BATEN BEHARRA

Honekin zera esan nahi dut: heziketa guztia planifikatu behar dela. «Bonordate onez» bakarrik ezin du gu jarraitu. Orain arte «boluntarismo» gehiegiz izan dugu. Nahiz eta «boluntarismo» eta «bonordate on» hoik benetan aipagarriak izan (eta gaur ikastolak baldin baditugu horregatik da) jadanik ez da aski.

Esate baterako, zoritzarrez, bainan garai honetan behintzat heziketa osoa (Preescolar, Basica eta Batxillera) toki guztietan ezin da eman.

Agian eta momentu honetan hau izango litzake irtenbide onena: eskema piramidal batez, heziketa planifikatu, alegia. Eskualde bakoitzean zati batzuk egin. Eskualde bakoitza zati batzutan banatu, adibidez Gipuzkoan: Donostia alde, Bergara alde, Zarautz alde eta abar. Zati hoietako herri guztietan eman ditekarengan Preescolar maila. Inbersio haundirik ez baita behar.

Bainan Oinarritzko Heziera Jeneralararen epe biak, toki guztietan inolaz ere ez ditekarengan, hortarako behar den dirua ikaragarria delako eta garai honetan posibilitaderik ez dagoelako.

Zati bakoitzak hiri-buru bat hautatuko luke eta Oinarritzko Heziera Jenerala han bakarrik ematen litzake. Batxilleratoakin gauza berbera.

Gipuzkoarentzako jarri ditudan erenpolak zati hoiek izan behar dutela ez du esan nahi. Agian zati guttiago edo gehiago izango lirateke. Hau dena azterketa sakon baten jakinen genuke.

Beraz, momentu honetan gure lanak hau izan behar du: HEZIKETAREN OINARRIAK FINKATU. Agian, oinarri ttikia izango litzake bainan ondo finkatuta baldin baliatza ardatza egiña izango genuke. Hau eginik, xistima osatu-errazago izango litzake.

Bainan... beste problema bat bada. Nork egingo luke hori? Ez dakit. Zeren eta momentu honetan ikastolak ba daudenez gero, zaila baita. Bainan hala ta guztiz zerbait egin behar da.

2.—LAGUNTZA PLANIFIKATUA

Beste puntuei lotuta dago. Orain arte, era askotako laguntzaren bidez jarraitu du ikastolak. Gehien bat gurasoengandik, laguntza pribatuengandik, Euskal jaialdien bidez eta abar.

Laguntza hau dena planifikatu behar dela, nahiko garbi dago.

Laguntza planifikatu, batzorde baten bidez. Batzorde honek, premia gorrienak nuri diren, lehengo eskema piramidal bat kontuan harturik nora eman behar diren eta abar inork baino mila bider hobeki jakinen baita luke.

Pentsatu behar da ea lehen esan dugun era hoietaz jasotzen den dirua egin behar den inbersioetarako nahikoa ahal den. Ez dut uste. Era honetako Batzordea egingo baliatza erakunde ofizialen aurrean (Aurrezki Kutxak, Bankoak, Diputazioak) litzake edo influentzia haundia izanen luke. Ikastola guztien ordezkari bezala agertuko bait litzake. Beraz, dirua lortzeko, prestamoen bidez, posibilitade haundiak izanen genituzke. Eta derrigorrez

1916... 1972... 56 urte tartean... Gaur eta orduan, halere, hiruretra berberak nagusi Londres-en eta Dublin-en: I.R.A., Irlandako Abertzale Armadaren ezagugarria.

Hots, 1972 honetan elkarren etsai diren IRA bi daude, ez bakar bat Londres-en aurka. Nola horretara dira hango gauzak?

IRA-ren politika-adarriari «Sinn Fein» deritza; eta Hegoaldeak askatasuna lortu zenez gerotzik, Dublina du bere agintaritza «ofiziala».

1963an joera-aldakuntza batzuk gertatu ziren «kanpoko» IRAren zuzendaritzan (Dublin «kanpoaldea» baita Ulster-koentzako); eta estrategiaren arazoa, IRAren egin-kizun nagusia, hitz batez, bere burua «marxista ortodoxo»-tar jotzen duen ijeneru batengan utzi zen: Roy Johnston-en eskuetan.

Johnston-en ustez IRAren jokatubidea eta helburuak marxismoaren argitan berriitu behar ziren, egin-kizunak «zehazkiago» azalduz. «Irlandako Langileen Errepublikak» baita hartu behar zen xedetzat; eta

Londresko Agintea klase-aginte gisa eraso behar zen aurrerakoan, burgesiaren eta oligarkiaren atzapatza gisa. Arriskurik handiena —dio Johnstonek— Ulsterko langileen arteko zatikeriak izanik, erlijioaren kontua burgesiari langileak zaitzeko erabiltzen duen txorimalo hutsa, eta abar, klase-batasuna argitu behar zitzaieen haueri eta haiel, lehendabiziko pausuan langile guztiek, protestanteek eta katolikoek, bat eginez. Denontzako helburu berbera: Irlanda Sozialista. Eta honen kontra, beraz, bai Londresko gobernuak; baina baita Dublingo gobernuaren eskuindarkeria. Kasu batasun abstraktoaren ipuinari Bietatik begiratu behar. Itsu-itsuan indarka jotzeari buruz ere, kasu: erromantizismo horiek kaltegarri gerta litezke. IRA «ofizial»-ren iritzi, beraz, Johnston-en eraginez, populu-osteak argitu behar aurrenik, egoeraren kakoa argituz, eta langileen arteko gorrotoa ekar lezaketen gogorkeriak alde batera utziz. Ulster-en askatasuna eta bi Irlandan arteko batasuna, segun-eta nolakoak; eta gerorako uzteia onena. Stormont-eko Parlamentorearen afera, esate baterako, sasi-problema bat iruditu zaio IRA «ofizialari». Marxismoaren heziketa helenik; eta gero gerokoak.

Ulsterko IRAtarrek aldakuntza hori sumatu zuten hein batez ondoko urteetan, eta batzuk haserre antzean jarri ere bai. Aldakuntza horretan ez ote zegoen Irlandaren nazio-arazoa alde batera utzita?

1969ko udaran Ulster-en lehenengo inkontur larriak gertatzen, Ulsterko (Belfast-ekoa lehenengoak) IRAko buruzagiek eskiluak eskatu zituzten Dublin-a. Dublingo IRA «ofizialak», ordea, bortxakeriak kaltegarri gerta litezkealata, ukatu egin zizkien.

Ulsterko IRAtarrek aldakuntza hori sumatu zuten hein batez ondoko urteetan, eta batzuk haserre antzean jarri ere bai. Aldakuntza horretan ez ote zegoen Irlandaren nazio-arazoa alde batera utzita?

1969ko udaran Ulster-en lehenengo inkontur larriak gertatzen, Ulsterko (Belfast-ekoa lehenengoak) IRAko buruzagiek eskiluak eskatu zituzten Dublin-a. Dublingo IRA «ofizialak», ordea, bortxakeriak kaltegarri gerta litezkealata, ukatu egin zizkien.

Eta horretan IRAren zatiketa gertatu zen 1969ko Irailan. Mc Stiofian eta O'Braidaigh Belfast-eko buruzagiek, Dublingo zuzendaritza «ofiziala»-rekin haustea erabaki zuten; eta, haren saldukeria beste modu batera konpontzeko erarik izan araterako, beste «Sinn Fein» bat sortu zuten, beste Bulego Politiku bat alegia: «Provisional» delakoa. Eta IRA berriitu honek, lehendabiziko helburutzat bi Irlandan bateratzea hartuz, harmatan altxatzea erabaki zuten.

Ulsterko «katolikoek» —oraintsu arte irlanatarrek bereziten zituen zeltatar hizkuntza galdua, «katoliko»-tasuna bihurtu baita britaniko ez diren nazio-ezagugarria— Sinn Fein-ean zer gertatzen zen ongi ulertu ez arren, «Provisional» delakoen IRAren alde jo zuten; eta ezagutzen dugun gudu bortitza hasi zen.

Dublingo IRA «ofizialak» atzerakada handia izan zuten Ulster-en 1969ko azkenaldian; eta, hori ikusita, abertzaleago agertu eta ekin-tza militar batzuk ere egin behar izan zituen.

«Provisional»-ak, bestaldetik, sozialismoaren ideia nagusiak onartu zituzten, eta beren programan sartu; baina «ofizialen» politike-

riak eta «teori-larregiak» etengabe, eta gaur arte, salatuz.

Eta horretantxe daude gauzak hor.

IRAK, noski ekintza militarretan zeharo murgildua, ezin dezake bere buruz eta IRA gisa politikarik egin; eta horrela sortu dira azkeneko urteetan politika-organizazio berri batzuk. Hauen artean, dena dela, ez dago batere elkartasunik; eta politikaren mailan, horrela, bi IRAen arteko herrak eta desberdintasun berberak agertzen dira.

Hiru alderdi bide dira nagusi irlandar abertzaleen artean:

1) S.P.L.P. — Sozialista eztiak. Hauen talde honek Dublingo gobernuaren laguntza izkutu bide du. Orain dela gutxi «Irlandar hezikeria Biltzarra» deritzana sortuz, eta Londresi buruz gogor jokatuz, jende ugari erakarri omen du.

2) N.I.C.R.A.—Hau da, Hiritar Eskubideen adelko Elkarte. Industri-eskualdeetan ongi xamar sartua, baserriaren eta arantzaleen artean ez bide da oso indartu. Agerian, eta protestante langileria ez uzatzeko, kapitalismoaren kontra eta Ulster-tarren arteko desberdintasunen kontra jokatzen du. Elkarte honetako famatuena, jakina, Margaret Devlin deputatua, «mini-gonaz jaxten den Fidel Castro» batatua izan dena. N.I.C.R.A. hau, futsean, IRA «ofizial»-aren beso politikoa da.

3) N.R.M. — (Alegia, Northern Resistance Movement). Franck Mc Manus-ek orain dela hilabete bakar batzuk sortua. «Le Monde»-k berriki azaltzen zenez, zeharo gorra ari da jendez eta aipuz, eta IRA «provisional»-aren beso politikoa dirudi. «Loturarik gabe sozialista libro»-tzat ezaguna da Westminster-en Mc Manus. N.R.M. delakoa edozer baino lehenago Ulster-en askatasuna nahi du, Londresekin hautsiz; eta una beretik, Irlanda osoaren batasuna, Irlanda horretan horrela sozialismoaren aldera abiatzeko.

LARRESORO

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETANafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Berruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

AURTIZ